

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea Gaubeako udal igerileku eta kirol instalazioetako zerbitzuaren 2022ko tasa

Alkatearen abenduaren 30eko 308/2021 Dekretuaren bidez onetsi zen Gaubeako udal igerileku eta kirol instalazioetako zerbitzuaren 2022ko tasa ordaindu behar dutenen errolda. Horiek horrela, jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, aztertu eta, egoki iritziz gero, nahi diren oharrak eta erreklamazioak aurkez daitezten.

Tasa horren errolda kobratzeko moduan jarriko da, eta 2022ko urtarrilaren 15era arte ordaindu ahal izango da borondatezko epean. Egun horretan kobratuko dira helbideratuko ordainagiriak.

Zergadunek udal bulegoetan ordaindu ahal izango dute, 09:00etatik 15:00etara, aipatutako epeko egun baliodunetan.

Era berean, zergapekoei jakinarazten zaie aukeran dutela ordainketa helbideratzea banketxe eta aurrezki kutxen bidez.

Gaubea, 2022ko urtarrilaren 3a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO